

**Balmasedan genero-indarkeriaren biktima  
diren emakumeen arreta hobetzeko  
jarduera-protokoloa**



***Diruz lagundu du:***



## **AURKIBIDE OROKORRA**

### **1. AURKEZPENA**

### **2. LEGE ESPARRUA ETA AURREKARIAK**

### **3. PROZEDURA METODOLOGIKOA**

### **4. DATUEN AURKEZPENA ETA AZTERKETA**

#### **4.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren zifrak**

#### **4.2. Baliabideen eta zerbitzuen azterketa**

### **5. ONDORIOAK ETA PROSPEKTIBAK**

### **6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA**

## 1. AURKEZPENA

Gure inguruan gai horri lotutako arau-esparrua garatzeko prozesua 2005ean hasi zen, Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legearekin, eta gero estatuan jarraitu zuen, emakumeen eskariei erantzunez 3/2007 Lege Organikoa onartu zenean. Gizarte-mugimenduak aliantzak eta konplizitateak lortu ditu erakunde publikoekin, eta horietako askok, hala nola Balmasedako Udalak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eta berdintasun eraginkorra lortzeko sinergiak biltzea erabaki dute.

Aurrerakuntza asko eta garrantzitsuak egin badira ere, desberdintasunak bere horretan dirau, eta indarkeriarik latzenaren kausa eta haztegia da: emakumeen aurkako indarkeria, alegia. Gizarteak, oro har, indarkeria era horren aurkako arbuioa behin eta berriro adierazi arren eta erakundeek biktimak artatzeko baliabideak eskaini arren, datuei erreparatzen badiegu, oraindik ere asko falta da arazoa kontrolpean dagoela esateko. Oraindik ere arreta-alorrean egindako ahaleginak ebaluatzeko hobekuntza-mekanismoak ezartzea falta da, baina horrekin batera, erakundeen parte-hartze eta espezializazio handiagoa behar den esparruetan jarri behar dugu indarra: sensibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra. Azken batean, emakumeen aurkako indarkeria erauzteko, etengabe ebaluatu beharko ditugu baliabideak eta programak, baldin eta ez badugu atzerapausorik egin nahi, eta indarkeria mota hori behin betiko erauztea ekarriko duen parte-hartze eta helburu politiko handiagoak lortu nahi baditugu.

**Balmasedan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko jarduera-protokoloak** gai horri ekiteko erreferentziako tresna bihurtu nahi du, berari esker, arreta indartu eta hobetzeko funtsezko elementuak finka daitezten. Era berean, egindako diagnostikoaren ondoriozko jardunbideak **2010-2014ko Balmasedako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean** txertatuko dira, indarkeria matxistaren mintegi eta elikagai nagusiak diren desberdintasunak erauzten laguntzeko. Diagnostikoaren ondorioz, 2012 ekitaldirako **Sentsibilizazio eta Prebentzio** jarduerak prestatu dira, biktimen arretarako eta suspertze osorako ezinbestekoak direla uste dugu-eta.

Ondoren aurkeztuko dugun agiria txostenaren bertsio laburtua da. Txosten osoak luze eta zabal jasotzen du Balmasedako udalerriko indarkeria-errealitatearen azterketa eta diagnostikoa, bai eta inplikaturako Erakunde guztiak Koordinatzeko Protokoloa prestatzeko proposamenak eta jardunbideak ere. Ahalegin handia egin da txosten horretako emaitza nagusiak nabarmentzen, bertan jasotako edukien osotasunari ezer kendu gabe. Helburua zera da: errazago irakurri eta hedapen handiago izango duela bermatzea.

Proiektu horretan parte hartu duten pertsona guztien laguntza eskertu nahi dugu,

ezinbestekoak izan baitira berori garatzeko. Euren parte-hartzea funtsezkoa izan eta izango da Balmasedako emakumeek ingurune seguruagoa izan dezaten eta indarkeria-kasuetan osoko arreta eskain dakien.

## **2. LEGE ESPARRUA ETA AURREKARIAK**

### **2.1. LEGE ESPARRUA**

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeei nahiz gizonei eragiten dien gizarte-arazoa da. Azken urteotan aurrerakuntza handia egin da indarkeria horren kausak eta ondorioak agerian jartzeko, eta barneratu egin da bere burua demokratikotzat duen gizarte bat ezin dela bizi halako gizarte-gaitz batekin. Aurrerakuntza horietako adibide bat zera da: 1975az geroztik, azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeria Erauzteko Nazioarteko Egun izendatzea. Egun eta aldarrikapen horrek geroz eta erakunde eta herritar gehiago biltzen ditu, eta genero-indarkeria guztiz erauzteko jarduerak indartzea ekarri du.

NBE aitzindaria da erakundeen artean, emakumeen aurkako bazterkeria era guztiak erauzteko Hitzarmena aldarrikatu baitzuen 1979an. 1975ean, Erakunde berak "Emakumeen aurkako Indarkeria Erauzteko Nazioarteko Egun" izendatu zuen azaroaren 25a, mugimendu feministek eta emakumeek egindako eskakizunei erantzunez. Era berean, 1995eko Pekingo Biltzarraren Ekintza Plataforma ere azpimarratu behar da.

Europar Batasunak Genero-indarkeriaren aurkako borrokarako Europako Urte izendatu zuen 1999. urtea, eta neska-mutilen, gazteen eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta haren aurka jarduteko ekintza komunitarioko programa bat onartu zuen Daphne programa barruan. Gaur egun, programa hori 2007-2013 aldirako berretsi da.

Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa mugarria da emakumeen aurkako indarkeria tratatzean, osoko ikuspegia ezarri eta indarkeria horri lotutako alderdi guztiak hartzen dituelako: prebentzioa, hezkuntza, gizartea, laguntza eta biktimen ondorengo arreta, eraso gehienak ematen diren familia- edo elkarbizitza-eremuari eragiten dion araudi zibila, eta Erakunde Publikoen subsidiarotasun-printzipioa ere, besteak beste. Era berean, irmotasunez heltzen dio Legeak arautzen duen indarkeria horren adierazpen guztiek izan behar duten zigor-erantzunari.

Eusko Jaurlaritzak onarturiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak kapitulu oso bat (VII. kapitulu) eskaini dio genero-indarkeriari, eta EAeko botere publiko guztiei eragiten dien araudia zehaztu du. Artikulatu horrek hainbat alderditatik heltzen dio genero-indarkeriaren tratamenduari, hala nola ikerkuntzatik, prebentziotik eta prestakuntzatik, edota biktimen arretatik eta babesetik.

Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeria erazteko onartu dituen beste funtsezko tresna batzuk aipatzearen, "Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria jasaten dituzten Emakumeei Harrera Hobe egiteko Erakundearen Artek II. Akordioa", "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana / IX. Legealdirako Jarraibideak" (2010) eta "Genero Indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren Jarduteko I. Plana" (2010) nabarmenduko ditugu.

## **2.2. AURREKARIAK**

Aurrekariei eta Balmasedako Udalaren ibilbideari lotuta, azpimarratu behar dugu Udal hori aitzindaria izan dela berdintasun-politikak ezartzen, 2000. urtean onartu baitzuen "Balmasedako Ekintza Positiborako I. Udal Plana". Gaur egun "Balmasedako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2010-2014)" dago indarrean. Esan behar dugu honako jardura espezifiko hauek zehazten direla emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, eta gertatzen direnean horien aurrean koordinatzeko eta arreta eskaintzeko:

**V2.1.1. ekintza.** Beste kanpo-eragile batzuekin lankidetzaz ezartzea eta mantentzea, indarkeriaren aurka borrokatzeko edota bazterkeria anitzak jasaten dituzten emakumeekiko programak garatzeko.

**V2.1.1. ekintza.** Poliziarekin, anbulatorioarekin eta inplikaturako beste erakunde batzuekin batera, genero-indarkeriak gertatzen direnean jarduteko protokoloak mantentzea eta hobetzea.

## **3. PROZEDURA METODOLOGIKOA**

### **3.1. ESPARRU TEORIKO-KONTZEPTUALA**

#### **"Genero Indarkeria/Emakumeen aurkako indarkeria" kontzeptua**

Fenomeno bera izendatzeko hainbat termino erabiltzen direnez, "**Emakumeen aurkako Indarkeria**" erabiltzea erabaki dugu, agerian uzten duelako **emakumeek** jasaten dutela indarkeria hori, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren ondorioz, menpekotasun-egoeran daudelako. "Etxeko indarkeria", "Sexu-indarkeria", "Etxeko tratu txarrak"... kontzeptuetatik bereizten da, horiek guztiak emakumeen aurkako indarkeriaren era zehatzak baitira. Halatan, legeei edo instituzio-protokoloari aipamen zehatza egiten ez zaien bitartean, protokolo honetan zehar "emakumeen aurkako indarkeria" terminoa erabiliko dugu.

Gaur egun emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpentzat jasotzen diren indarkeria motak ere hartzen dira kontuan, eta geroz eta gehiago agertzen dira estatistiketan: "**Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria**", "**Familia barruko indarkeria**" eta "**Sexu-indarkeria**" (aurreko bietatik desberdina).

## **3.2. HELBURU OROKORRAK ETA HELBURU ZEHATZAK**

### **HELBURU OROKORRA**

**Balmasedan genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arreta hobetzeko jarduera-protokolo bat garatzea**

### **HELBURU ZEHATZAK**

- ✓ Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arretan gaur egun eskaintzen diren zerbitzuak aztertzea: gizarte-zerbitzuak, zerbitzu juridikoak, psikologikoa, etab.
- ✓ Genero-indarkeriaren osoko arretan inplikaturako erakundeak identifikatzea: polizia-babesa, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, harrerako etxebizitzak eta larrialdiko zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, etxebizitza, laneratzea, etab.
- ✓ Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek laguntza-eske egindako tramiteetan zer arazo izan dituzten biltzea.
- ✓ Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen osoko arreta bermatzeko hobekuntza-proposamenak zehaztea.
- ✓ Udalbatzak onartzea.
- ✓ Barruan eta kanpoan zabaltzea.
- ✓ Diagnostikoan eta jarduera-protokolo iraunkorra eta eraginkorra garatzeko prozesuan erakundeak inplikatzeko, erakunde instituzionalak izan (Ertzaintza, Osasun Zentroa, Gizarte Zerbitzuak, etab.) edo elkarte-mundukoak izan (emakume-elkarteak...).

### 3.3. METODOLOGIAREN DESKRIBAPENA:

Protokoloa garatzeko metodologian bost fase bereizi dira, eta metodologia kuantitatiboa nahiz kualitatiboa erabili dira.



## Dokumentatze-fasea

### Datuak biltzea

- Bizkaiko eta Balmasedako datuak, indarkeria jasaten duten emakumeentzako baliabideei buruz eta erabiltze-mailari buruz.
- EAEn, Bizkaian eta Balmasedan arreta eskatzen duten emakumeen profilari buruzko datuak.
- EAEn eta Bizkaian eraildako emakumeei buruzko datuak.

### Galdetegia

- Jarduera-protokoloari buruzko galdetegia, honako hauei zuzendua: Gizarte Zerbitzuak, Ertzaintza, Balmasedako Epaitegia eta Osasun Zentroa, Zallako Aholkularitza Juridikoa eta BFaren Aholkularitza Psikologikoa.

## Esperimentazio-fasea

### Metodologia kualitatiboa Metodologia

#### Elkarrizketak eta Eztatbaida-talde bat

Balmasedako Udal Gizarte Zerbitzuak, Ertzaintza, Balmaseda eta Zallako Aholkularitza Juridikoa. BFaren Aholkularitza Juridikoa eta emakume biktima bat. Eztatbaida-talde bat emakume biktimekin.



## 4. DATUEN AURKEZPENA ETA AZTERKETA

### 4.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ZIFRAK

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan<sup>1</sup> indarkeria horrek izan duen eraginaren datuetatik abiatuta ateratako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko ditugu, datu garrantzitsuenak erakusten dituzten taulekin batera.<sup>2</sup>

Eraildako emakumeen kopuruaren eta profilaren inguruko datuen inguruan, honako hau nabarmenduko dugu:

- 2002 eta 2010 bitartean, bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakumeen ehuneko altua (% 71 EAEn eta % 100 Bizkaian). Ondorioz, esan dezakegu horixe dela indarkeria modu ohikoena.
- EAEn bost emakume hil dituzte familia barruan (horietatik hiru Bizkaian) eta, beraz, esan dezakegu horixe dela hilketen bigarren kausa.
- Eraildako emakumeen % 66 hiltzailearekin batera bizi zen. Halatan, erasotzailearen eta biktimaren arteko lotura hori (bikotekidea, bikotekide ohia edota senidea) dagoen ehunekoa oso altua da; bestelako lege-hauste bortitz batzuetan ez da ematen tamaina horretan.
- Eraildako emakumeen % 22k 28 urte baino gutxiago zituen. Datu horrek agerian jartzen du emakume gazteen artean indarkeria-kasuen ehunekoa altua dela eta, beraz, fenomeno horrek iraun dirauela, geldiarazteko politiken gainetik ere.
- Biktimen % 26 emakume immigranteak dira, eta, ondorioz, indarkeria hori espainiar nazionalitateko emakumeen artean ematen da batez ere (% 74).

<p style="text-align: center;"><b>EAEn ERAILDAKO EMAKUMEAK (2002-2010)</b> 27 emakume</p> <p style="text-align: center;"><b>BIZKAIAN ERAILDAKO EMAKUMEAK (2004-2010)</b> 14 emakume</p> <p style="text-align: center;"><b>EAEn 2010ean ERAILDAKO EMAKUMEAK</b> 5 emakume</p> <p style="text-align: center;">Jatorria: Tolosa, Lasarte-Oria, Barakaldo (2) eta Bilbo</p> <p style="text-align: center;"><b>BIZKAIAN 2010EAN ERAILDAKO EMAKUMEAK</b> 3 emakume</p>
--

<sup>1</sup> Dokumentazio-iturriak:

- "EAEn genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 2010eko txostena". Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arretarako Zuzendaritza

- "Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren arretaren inguruko zifrak (2010)". Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia.

<sup>2</sup> Datu guztien berri izateko, ikusi txosten osoa.

**Biktimizazioei buruzko zenbatekoen** berri ematen dizkiguten datuei lotuta<sup>3</sup>, honako hau azpimarra dezakegu:

- 1.763 biktima eta 4.285 biktimizazio izan direlako datuak erakusten du emakume berberarengan biktimizazio bat baino gehiago egon dela.
- Sexu-askatasunaren aurkako lege-hausteengatik % 5eko biktimizazio gertatzen da, Bizkaian nahiz EAEn. Tipologia horren ondorioz EAEn emakumerik erail ez duten arren, atal horretan halakoak gertatzen direla nabarmentzen da.
- Sexu-askatasunaren aurkako lege-hauste baten biktima diren 10 emakumeetatik 7k 30 urte baino gutxiago dituzte; esan daiteke, beraz, emakume gazteek jasaten dutela gehien.
- Biktimizazio kopuru handiena oporraldian, asteburuetan eta 19:00ak eta 23:00ak bitartean gertatzen da, aldi horietan erasotzaileak kontaktu handiagoa baitu biktimarekin. Datu horrek intzidentzia handieneko aldiak aurreikusteko aukera eskaintzen du.
- Bizkaian 2010ean familia barruko indarkeria zuzenean jaso duten neskatoen kopuru altuaren datua azpimarratu behar da (53 kasu).
- Aurreko atalean bezala, etxe-esparruan izandako biktimizazioen ehunekoa (% 66,1) eta biktimarekin bizi den bikotekideak eragindako biktimizazio-kasuen ehunekoa (% 52,1) oso altua da, bi kasuetan.
- Azkenik, nabarmendu egin behar dugu sexu-askatasunaren aurkako lege-hausteengatik biktimizazioa duten espainiar nazionalitateko emakumeen ehuneko altua (% 79). Ehuneko hori altuagoa da Bizkaian era guztietako indarkeria-kasuak (etxe barrukoak eta bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak) jasan dituzten espainiar nazionalitateko emakumeen biktimizazioena baino.

**BIKTIMIZAZIOAK EAEn (2010)**

Biktimizazioak: 4.285 kasu

Biktimak: 1.763 emakume

**BIKTIMIZAZIOAK BIZKAIAN (2010)**

Biktimizazioak: 2.366

**Egindako salaketei** buruz, zera azpimarra daiteke:

- EAEn eta BIZKAIAN aurkezturiko salaketei buruzko datuak aztertu ondoren, eta bereziki 2008tik aurrera salaketa kopurua beherantz joan zela ikusirik, ez da aurkitu egoera hori azalduko duen arrazoirik, ez eta 2003tik 2008ra izandako gorakada handia azalduko duen arrazoirik ere. Europar Batasuneko adituek emandako datua

<sup>3</sup> **Biktimizazioak:** Pertsonak lege-hausteren bat jaso duten aldiak (pertsona berak biktimizazio bat baino gehiago izan ditzake). **Biktimak:** Lege-hausteren bat jasan duten pertsonak

nabarmendu behar dugu: haien esanetan, emakumeen aurkako indarkeria-kasuen % 20 baino ez da bistaritzen, eta % hori areagotu egiten da, gainera, 5.000 biztanletik beherako herrietan. Zentzu horretan, emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoan agerian ikusten denari (izebergaren gailurrari) buruzko hausnarketa sakonagoa egin behar da, eta errealitatearen azterketa fidagarria egiteko neurri egokiak hartu behar dira, horrela jokatuz baino ezingo delako ahalbidetu esku-hartze egokia.

**SALAKETAK EAEn ETA BIZKAIAN (2010)**

**EAE (2010):** 2.984 salaketa  
**BIZKAIA (2010):** 1.645 salaketa

**EAEn EGINDAKO SALAKETA KOPURUAREN BILAKAERA (2002-2010)**

<b>URTEA</b>	<b>ZENBAT SALAKETA</b>
2002	2.477
2008	4.717
2009	4.660
2010	4.285

**BIZKAIAN EGINDAKO SALAKETA KOPURUAREN BILAKAERA (2003-2010)**

<b>URTEA</b>	<b>ZENBAT SALAKETA</b>
2003	1.670
2008	2.723
2009	2.652
2010	2.366

**Indarkeria-alorrean irekitako espedienteei eta eskatutako babes-neurriei buruz** zera nabarmenduko dugu:

- 2009. urtearen aldean, emakume atzerritarrek eskatutako babes-aginduek gora egin dute. Urte horretan 161 emakumek eskatu zuten babes-agindua. 2010ean, baina, zenbateko horrek gora egin zuen eta 187 izan ziren. Indarkeria-datuen eta gure herrian atzerriko emakumeen presentziaren artean dagoen harremana aztertu behar da, horrela jakingo dugulako zein den hazkunde horren jatorria, bai eta emakume horiek jasaten duten bazterkeria bikoitzari lotutako beste faktoreak ere (emakumeak ez ezik atzerritarrak ere badirelako).
- Esan behar da, gainera, Bizkaian egindako babes-eskaera kasuen % 45,9an, bikotekide ohia izaten dela kausa (dagoeneko amaituta dagoen harreman afektibo bateko kide ohia); % 27,9an ezkontidea izaten dela; eta % 27,9an, gaur egungo bikotekidea.

**INDARKERIAREN ALORREKO ESPEDIENTEAK EAEn ETA BIZKAIAN (2010)**  
**EAEn 2010ean irekitako espediente kopurua:**  
3.071  
**2010eko abenduan irekita zirauten espedienteak**  
4.293

**EAEn eta BIZKAIAN EZARRITAKO BABES NEURRIEI BURUZKO DATUAK**  
**(2010)**

**AUTONOMIA ERKIDEGOIA:**

**Era bateko edo besteko babes-neurriak dituzten emakumeak:**

4.709 emakume

**BIZKAIA**

**Babes-aginduak**

Irekitakoak (lehen tramiteak eginda): 516

Ezarritakoak: 344

Ukatutakoak: 172

**Babes-aginduak BALMASEDAN**

Irekitakoak: 0

Ezarritakoak: 0

**Ondorioak:**

- Horren ardura duten erakundeek (BFA) udal mailan datuak biltzea optimizatzen lagunduko duten baliabide nahikoak eskaintzearen premia nabarmendu behar dugu. Balmasedan indarkeria jasaten duten emakumeen kasuan, oso datu gutxi dugula azpimarratu behar dugu. Hartara, interesgarria iritzi diogu EAEko eta Bizkaiko datuen berri emateari, datu horien bidez emakumeen giza eskubideen urraketaren tamainaren hurbilketa bat izan dezagun.
- Era berean, oso garrantzitsua da jakitea bildutako aldagaiak pertinenteak diren ala azterketarako aldagai berriak behar ote diren. Gainera, tokian-tokian, erkidegoetan eta estatuan informazioa biltzen denean aldagai erkideak erabiltzearen premia azpimarratu behar dugu, horrek alderaketak eta bilakaerak ezartzeko aukera eskainiko du-eta.
- Bizkaiko Foru Aldundia da Bizkaiko indarkeriaren mapa egitearen arduraduna eta, ondorioz, erakunde horrek arduratu behar du udalerrri bakoitzeko emakumeen errealitateari buruzko datuak egoteaz. Hartara, udal-esparruan datu horiek sistematikoki biltzeko konpromiso tinko eta saihestezina onartu behar du.
- Azkenik, ikerketa-iturrietatik ateratako datuak sakon aztertzeko premia ere agertu behar dugu; datuek gora edo behera egiten dutenean arrazoiak azaldu edota hipotesiak egiten ahalegindu behar dugu, datuek ez baitute inolako zentzurik testuinguruan kokatzeko azterketa-esparrurik ez badago eta azterketa-aldagai batzuen arabera lotzen ez badira. Gainera, urtetik urterako alderaketak ezartzeko eta etorkizunean beste ikerketa eta jarduketak batzuk egiteko norabidea zehazteko ere balio behar dute.

## **4.2. BALIABIDEEN ETA ZERBITZUEN AZTERKETA**

Balmasedako eta Enkarterrietako baliabideak ezagutzeko, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia (BGIB) eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzara (GIBAZ) jo dugu. Bi horietatik jasotako informazioa osatzeko, baina, Eskualdeko beste udal batzuekin harremanetan jarri gara eta zerbitzu horietako arduradunengandik zuzenean jaso dugu informazioa.

Balmasedan, zerbitzu orokorrek egiten dute indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta, eta ez indarkeria kasuetarako zerbitzu bereziek, Ertzaintzaren eta Epaitegiaren kasuan izan ezik.

### **4.2.1. UDAL BALIABIDEAK**

#### **Gizarte Zerbitzuak**

##### **Osasun-zentroa**

Gizarte Zerbitzuan ezin da zehatz jakin emakume biktimak artatzen direnik.

Ez dago informazio kontrastaturik Osasun-zentroak emakume biktimak artatu izanaren inguruan.

##### **Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua**

Badakigu zerbitzuak eskaintzen dituztela, baina ez dakigu zein den emakume erabiltzaileen tipologia eta profila.

### **4.2.2. ESKUALDEKO BALIABIDEAK**

#### **Balmasedako Ertzaintza**

Balmasedako Biktimizazio-tasa (10.000 emakumeko ezartzen dena) % 31,7koa da, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta Enkarterrietako Mankomunitateko batez bestekoa baino 2 puntu altuagoa. Biktimizazio kopuru handiena bikotekideengandik eta bikotekide ohiengandik sortzen da, eta ondoren dator familia barruko indarkeria.

#### **Balmasedako Epaitegia**

Honako hau da 2010ean Balmasedako Epaitegian emakumeen aurkako indarkeriari lotutako zigor-auzien kopurua: 49 kasu ireki dira, 50 ebatzi dira eta 19 amaitzeko daude.

#### **Zallako Topagunea**

Krisi-egoeran dauden familiak topatzeko eremu bat da, diziplina anitzeko talde teknikoaren laguntzaz jarraipena egin eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza eskaintzeko.

#### **BFAk kudeatutako Laguntza Psikologikorako Zerbitzua**

Zallako Udalaren egoitzetan dago, eta Enkarterri osoko emakumeei eskaintzen die

zerbitzua 2009az geroztik.

Enkarterrietako hemezortzi (18) emakume hartu dituzte guztira, horietatik lau (4) Balmasedakoak. Bertaratutako emakumeen ia % 100 bikotekideak edo bikotekide ohiak eraso du.

#### **Zallako Udaleko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua**

Dagoeneko badira 7 urte Zallako Udala Enkarterri osoko biztanleentzat irekita dagoen gai juridikoen inguruko aholkularitza-zerbitzua eskaintzen hasi zenetik.

Balmasedako hiru (3) emakumek eskatu dute aholkularitza juridikoa.

#### **4.2.3. Beste baliabide batzuk Bizkaian eta EAEn**

Epigrafe horren pean agertzen diren baliabideak ez dira xehakutzen udalaren arabera eta, ondorioz, ez dakigu Balmasedako emakumeek erabili ote dituzten.

**BFaren larrialdiko harrera-zerbitzua:** 22 leku ditu eta emakumeei ez ezik, euren seme-alabei eta euren kargu dituzten pertsoneri ere eskaintzen die ostatua.

#### **Epe labur/luzeko harrera**

BFaren menpeko ostatu-zerbitzua, emakumeak bakarrik nahiz euren menpe dituzten pertsonekin batera hartzeko. Larrialdiko zerbitzuek edo udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuek bideratzen dituzte emakumeak bertara.

#### **BFaren Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua**

Sexu-indarkeria eta etxeke tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei aholkularitza eskaintzeko zerbitzua da, eta hainbat gairi buruzko informazioa eskaintzen die: emakume horiek zer eskubide duten, non eta noren aurrean salatu gertaerak, nola eskuratu baliabide juridikoak eta gizarte-baliabideak... Gainera, hala balitz, prozesu judizialean ere parte hartzen dute. Oro har, baliabide hori geroz eta gehiagotan eskatzen da.

#### **Familia Esku-hartzean espezializatutako Programa**

Etxean tratatu txarrak jasan ondoren, "*tratu txarren eragilea bizi den familia-etxebizitzan jarraitu edo bertara itzultzea*" erabaki duten emakumeei eta familia horiekin bizi diren adingabeei zuzenduta. Bizkaiko 15 udalerritako emakumeekin erabili da programa.

#### **Telefono bidezko arreta-zerbitzua**

Egunean 24 orduz eta urteko 365 egunetan abian den doako arreta-zerbitzua. Indarkeriaren ondorioz hauskortasun-egoeran dauden emakumeei laguntza psikologikoa, informazioa eta orientabidea eskaintzen dizkie (900 840 111).

2010ean, EAEn 3.466 dei jaso ziren (2006ko deiak halako hiru). Emakumeen % 47,97k seme-alaba adingabeak ditu euren kargu. Deien % 54,89 Bizkaitik egin ziren.

#### **Etxebizitza-alorreko laguntzak**

Alokairuko etxebizitzak esleitzen dira, bi modalitatetan: esleipen zuzena eta Kupo berezia alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduran.

Kupo berezian abian dauden 224 espedienteetatik % 54,91 Bizkaian dago, eta Esleipen zuzenak 15 izan dira, horietatik % 45,46 Bizkaian.

### **Laguntza ekonomikoak**

Bizkaian 27 eskari onartu dira, eta guztira 132.912 euro eman dira. Balmasedako edo Enkarterrietako emakume batek ere ez du jaso halako laguntzarik.

### **Biktimari Laguntzeko Zerbitzua**

Prozesu osoan zehar orientazioa eta laguntza eskaintzen ditu, emakumea zuzenean hartuta, doan, konfidentziasunez, banaka eta era pertsonalizatuan. Bizkaian dago, Bilboko Justizia Jauregian eta Barakaldon.

### **Ondorioak**

- Azpimarratu egin behar da Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren txostenak eskura dauden zerbitzuei buruz eskaintzen duen informazioan ez direla aipatzen Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek prestakuntza- eta enplegu-alorrean eskaintzen dituzten laguntzak.
- Dokumentazio fasean, faltan antzeman ditugu zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeen iritziei buruzko azterketak.
- Eskaera eta eskaintza aztertu behar dira, eskura dauden baliabideak zerbitzu horiek eskatzen dituzten emakumeen eskariari egokitzen ote zaizkien jakiteko.
- Bildutako informazio ia guztia indarkeriaren ageriko adierazpen-kasuengatik artatutako emakumeei buruzkoa dela ikusi dugu (batez ere zerbitzu judizialean eta polizia-zerbitzuetan), eta horrek indarkeriaren gaia "judizialeratzea eta poliziaratzea" ekar dezakeela uste dugu. Esan behar, halere, gizarte-zerbitzuak eta Aholkularitza Juridiko eta Psikologikoko zerbitzuak askoz ere gutxiago erabiltzen direla. Beraz, gai horri ikuspegi anitz eta osokotik heldu behar zaio, sentsibilizazioa eta prebentzioa ahaztu gabe.
- Kasu askotan, indarkeria-arazoengatik orientazio- eta arreta-zerbitzuetara jotzen duten emakumeak beste udalerrri batzuetatik etortzen dira, udalerrri horietan orientazio-zerbitzuak egonda ere. Hori horrela izateko zer arrazoi dagoen aztertu beharko litzateke: konfidentziasuna bermatzea (batez ere udalerrri txikietan), zerbitzuaren kalitatea, eskaintzen zaien informazioa kontrastatzea, etab. Puntu horretan ez dugu ahantzi behar genero-alorrean prestakuntza espezifikoak duten profesionalen eta eskura dauden baliabideen artean dagoen aldea. Prestakuntza edo espezializazio gutxi badago, egoera horrek ondorio txarrak ditu kasuak antzemateko, ezagutzeko eta, jakina, arreta egokia eskaintzeko.

## 5. ONDORIOAK ETA PROSPEKTIBAK

Diagnostikoaren ondorioz arreta eta koordinazioa hobetzeko proposatutako ekintzak zerrendatuko ditugu ondoren.

### INPLIKATUTAKO INSTITUZIO ETA ORGANISMO GUZTIENTZAT

#### 1. ekintza

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan inplikaturako Institutuzio eta Organismo guztiei zuzendutako **prestakuntza-programa** bat ezartzea. Programa horrek honako oinarritzko eduki hauek izango ditu:

- EAEn, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta Eskualdean dauden zerbitzu, baliabide eta egitura guztiak ezagutzea (juridikoak, polizia-alorrekoak, larrialdiko gizarte-zerbitzuak eta "lehentasunezko" zerbitzuak...).
- Datuen eta datu horien bilakaeraren ezagutza hobetzea.
- Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria jasaten dituzten Emakumeei Harrera Hobe egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioaren edukiak hobeto ezagutzea, eta batez ere Jarduera Protokoloa hobeto ezagutzea.
- Genero Berdintasunaren alorrean indarrean dagoen lege- eta arau-esparrua ezagutzea. Genero-desberdintasunaren jatorria.
- Eusko Jaurlaritzaren Plan estrategikoa ezagutzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren era guztiak ezagutzea (bikotea, bikotekide ohia, familia barrukoa, sexu-askatasunaren aurkako lege-haustea). Indarkeriaren definizioa eta tipologia, emakumeen bizi-zikloan zehar. Jatorria eta ondorioak. Indarkeriaren zikloa bikotearen esparruan: emakumeenganako ondorioak (GIBAZ, 2010).
- Legeak genero-indarkeriatzat zer hartzen duen hobeto ezagutzea, instituzioek kontzeptu hori emakumeei eta euren menpeko pertsoneri eskaintzen zaizkien baliabideekin lot dezaten, eta beste indarkeria mota batzuetatik eta beste publiko-xede batzuetatik bereiz dezaten.

#### 2. ekintza

Prozesuan zehar beharrezkoak diren datu erkidea biltzeko inprimakiak egokitzea.

#### 3. ekintza

Inprimaketako informazio erkidea biltzea eta tratamendu informatikoa ezartzea, biktimei, euren seme-alabei eta menpeko pertsoneri osoko arreta eskaintzeko behar den informazioa eskuratu ahal izateko.



#### **4. ekintza**

Emakume biktimei ahozko nahiz idatzizko informazioa ematea, zer eskubide eta baliabide dituzten jakinarazteko.

#### **5. ekintza**

Enkarterrietako udalerrri guztien eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arretan inplikazio zuzena duten Erakunde eta Organismo guztien arteko Koordinazio Protokolo bat garatzea.

#### **6. ekintza**

Prebentziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak egitea.

#### **7. ekintza**

Zerbitzuak ondo eskaintzeko behar diren baliabide teknikoak (telematikoak...) eskaintzea.

#### **8. ekintza**

Inplikaturako organismo eta erakunde bakoitzak gutxienez ekintza bat aukeratzea urtero, eta hori burutzeko behar diren baliabideak eta bitartekoak identifikatzea.

#### **9. ekintza**

Aldian aldiro, arretaren funtsezko elementu guztien ebaluazioak egitea (konfidentzialtasuna bermatzen dela egiaztatzea, zerbitzuen eskaera eta eskaintza aztertzea, datuen bilakaera ikustea, baliabideen erabilera eta horiek esleitzeko irizpideak finkatzea, etab.), eta behar diren hobekuntzak ezartzea.

#### **10. ekintza**

EAEEn Erakunde arteko Protokoloaren ebaluazioa ezagutzea, toki-mailako protokoloan ere hobekuntzak ezartzeko.

### **BALMASEDAKO UDALA:**

#### **1. ekintza**

Balmasedan genero-indarkeria prebenitzeko ekinbide bat bultzatu eta burutzea, eta udalerriko hezkuntza-zentroek bertan parte hartzea.

#### **2. ekintza**

Aldian aldiro, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari indarkeria jasaten duten emakumeentzako zerbitzu eta baliabideei buruzko eskuliburuak eta beste formatu batzuk eskatzea, erabiltzaileei eta herritar guztiei banatzeko.

#### **3. ekintza**

Urtean behin koordinaziorako bilerak egitea eta bertan parte hartzea zinegotzigoko

zerbitzuek, bai eta arretaz eta prebentzioaz arduratzen diren beste zerbitzu eta zinegotzigo batzuk ere.

#### **4. ekintza**

Urtean behin, Balmasedako herritar guztiei zuzendutako jardunaldi/mintegi/ikastaro edo tailer bat egitea, eta arreta berezia eskaintzea Balmasedako emakumeen, elkarteen eta emakume-taldeen parte hartzeari.

#### **5. ekintza**

Balmasedako Udalak BFaren Bizkaiko Indarkeriaren Behatokiari eskatzea udaletako informazio-bilketa hobe dezala, eta zehazki, genero-indarkeria kasuetan eskaerak egin eta baliabideak erabiltzen dituzten Balmasedako emakumeen inguruko datuak bil ditzala (zerbitzu judizialak, Ertzaintza...).

#### **6. ekintza**

Indarkeria-gaietan Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua erabiltzen duten emakumeen jatorria, profila eta premiak ezagutzea.

#### **7. ekintza**

Udalaren eskumendeko arreta- eta orientazio-baliabideen ebaluazioa egiteko galdetegi bat prestatzea, erabiltzaileek eurek bete dezaten.

#### **8. ekintza**

Arreta polizia-alorrean eta alor judizialean zentratzeak gainerako baliabideetan prebentzioa eta antzematea baztertzea eragiten ote duen aztertzea, eta horren ondorioz eskura dauden neurri guztiak osorik erabiltzea galarazten den ikustea.

#### **9. ekintza**

Zerbitzu-eskaera gehienak zerbitzu eta erakunde batzuetan (Ertzaintza eta Epaitegiak) zergatik metatzen diren ezagutzea.

#### **10. ekintza**

Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko arretarako leihatila bakarrari buruzko informazioa bistaratu eta hedatzea.

#### **11. ekintza**

Aldundiari eta Jaurlaritzari biktimei laguntzeko adituaren figura sor dezala eskatzea (laguntza pertsonalerako, diru-laguntzak kudeatzeko...), indarkeriaren espiralari irtenbidea bilatu bitartean.

#### **12. ekintza**

Eusko Jaurlaritzari epaiketetan biktimei laguntzeko adituaren figura sor dezala eskatzea.

#### **13. ekintza**

Eusko Jaurlaritzari seme-alabentzat ordaintzen ez den elikagai-pentsioa bermatzeko

funts bat sor dezala eskatzea.

## 7. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

### BIBLIOGRAFIA

- ⤴ 1/2004 Lege Organikoa, Abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa.
- ⤴ 4/2005 Legea, Otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- ⤴ EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana
- ⤴ Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Indarkeria jasaten dituzten Emakumeei Harrera Hobe egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioa. Emakunde, Gasteiz 2009.
- ⤴ Genero Indarkeriaren Kontrako Eusko Jaurlaritzaren I. Jarduteko Plana. Herrizaingo Saila. Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza. 2011ko ekainaren 7an onartua.
- ⤴ Balmasedako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2010-2014).

### WEBGRAFIA

- EMAKUNDE
  - ⤴ <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/eu/>
- BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
  - ⤴ [http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/eu\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html)
- EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILEKO BIKTIMEN ARRETARAKO ZUZENDARITZA
  - ⤴ [http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg0000/eu/contenidos/informacion/avvg\\_info/eu\\_avvg/r42\\_avvg\\_prehome.html](http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg0000/eu/contenidos/informacion/avvg_info/eu_avvg/r42_avvg_prehome.html)
- BALMASEDAKO BERDINTASUNERAKO II. UDAL PLANA
  - ⤴ <http://www.balmaseda.net/eu-ES/Albisteak/Orrialdeak/IIPlandeIgualdadMunicipal.aspx>